

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

63/2026 Foru Agindua, uztailaren 24koa. Onartzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esparruan produktibitate-osagarria arautzen duen apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduren aldaketa

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen IX. tituluak euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsari-araubidea arautzen du.

Zehazki, lege horren 122.2.c) artikulua aurreikusten du osagarri bat egongo dela kudeaketan lortutako emaitzengatik edo produktibitateagatik, administrazioako langileei dagozkien ordainsari osagarrien barruan. Osagarri hori ordainsari-elementu bat da, zuzenean lotuta dagoena errendimendurekin, aparteko jarduerarekin eta enplegatu publikoek beren lanpostua betetzeko duten interes edo ekimenarekin.

Bestalde, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura dauden langileen lan-baldintzak arautzen dituen bigarren akordioan, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutakoan, erakunde autonomo horren eremuko ordainsari osagarrien araubidea ezartzen da. Akordio arautzaile honen 21.3 artikuluan, osagarri hori zehazteko irizpideak erregelamendu bidez garatzeko aukera xedatzen da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen gizarte-zerbitzuen espezifikotasuna kontuan hartuta.

Aurrekoarekin bat etorritik, apirilaren 27ko 20/2006 Foru Agindua onartu zen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esparruan produktibitate-osagarria arautzeko. Foru-agindu hori gerora aldatu egin zen, otsailaren 14ko 14/2007, urtarrilaren 22ko 3/2009, maiatzaren 29ko 82/2013, irailaren 20ko 103/2016, abuztuaren 3ko 185/2017, abenduaren 4ko 154/2018, urriaren 9ko 23/2019 eta abenduaren 20ko 50/2019 foru-aginduen bidez. Produktibitate-osagarri hori hainbat kontzeptuk osatzen dute, besteak beste, oporren prorrata deritzonak. Oporren hainbanaketa hori (20/2006 Foru Aginduen d atala) igande eta jaiegunetako lanak (b atala) eta guardia medikoek (c atala) osatzen duten ordainsari-kontzeptua da, hori guztia oporraldiari dagokiona.

Aurrekoa finkatuta, Auzitegi Gorenaren ekainaren 25eko 830/2025 epaiak, aurreko erabaki judizialak berretsiz (784/2024 epaia, maiatzaren 9koa, eta 830/2025 epaia, ekainaren 25ekoa, eta 1677/2019 epaia, abenduaren 4koa, 1233/2020 epaia, urriaren 1ekoa, 1054/2020 epaia, uztailaren 21ekoa, eta 771/2022 epaia, ekainaren 16koa), onartzen du, besteak beste, jaiegunetan zerbitzuak emateagatik jasotako ordainsariak, txandakako lana lanaldi arruntaren parte denean, «jasotzen den ordainsari arrunt eta erregularrean integratu behar direla, nahiz eta zerbitzu horiek ez diren ematen urteko oporraldian, aldi baterako ezintasunean, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan (...)». Hau da, «funtzionarioak gaueko eta jaiegunetako txandak barne hartzen dituen txanda-erregimenean lan egiten duenean, zerbitzu horiek lanaldi arruntaren ordutegiaren barruan ematen badira, funtzionarioak ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du urteko oporraldietan, aldi baterako ezintasunean, norberaren gauzetarako baimenetan eta ordaindutako gainerako baimenetan». Finkatutako jurisprudentzia horren ondorioz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eremuan ex novo integratuko da, 2025eko urriaren 1etik aurrera, txandakako araubidean lan egiten duten funtzionarioen ordainsari arruntean, urteko oporraldietan jaiegunetan lan egiteagatik osagarria, aldi baterako ezintasuna, norberaren gauzetarako baimenak eta gainerako baimen ordainduak. Beraz, jaiegunetako lanari dagokion oporren hainbanaketa deuseza eta ez-eraginkorra bihurtzen da, ordainketa hori beste modu batera egingo baita.

Azken batean, oporraldiari dagokion jaiegun-osagarriaren ordainketa horrek oporren hainbanaketaren ordainketa baliogabetzea dakar b kontzeptuari dagokionez (igande eta jaiegunetako lana), non bis in idem printzipioan oinarrituta, eta, beraz, dagokion arau-aldaketa egin behar da, oporraldiari dagozkion igande eta jaiegunen ordainketari buruzko egungo egoera islatzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XIV. tituluari dagokionez, bete egin da legegintzako errege dekretu horren 37. artikuluan aipatzen den nahitaezko negoziazioa.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregulamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren gobernu, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren artikulua konkordanteekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen produktibitate-osagarria arautzen duen apirilaren 27ko 20/2006 Foru Aginduaren eranskineko 2.d) idatz-zatia aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

d) Oporren prorrata: urriko lansarian produktibitate osagarria sartuko da, c) idatz zatietan jasotako kontzeptuei eta oporraldiari dagokiena.

Funtzionarioei banan-banan kalkulatu zaie prorrata, aurreko urteko urriaren 1a eta aribidean dagoen urteko irailaren 30a artean aipatutako kontzeptuengatik jasotako hileko batez bestekoaren arabera. enplegu baldintzen erabaki arautzailearen 31.2.a) artikuluan norbere gauzetarako jasotako eszedentzia edo baimenak direnean, ez da beharrezkoa izango izendapenak aipatutako tarte hori guztia har dezan. Horrelakoetan, eszedentzia edo baimenaren iraupena gorabehera, hileko batez bestekoa aurreko urteko urriaren 1a eta aribidean den urteko irailaren 30a arteko tarteagatik egingo da berdin-berdin.

Bigarrena. ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 3a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
MIREN SARATXAGA DE ISLA